



BARREN
TOKIKOM



Dantzak bizi du

Eneko Etxaniz

G R E M I O N E N GIDA

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

ELEKTRIZITATEA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behe
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Erosario kalea, 15 behe - Elgoibar

- ⊕ Proiektuak eta erreformak
- ⊕ Sukaldeak
- ⊕ Gremioen koordinazioa
- ⊕ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019
605 713 168**

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



ARROZTEGIAK

Ulazia

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albituri industrialdea, 1-O/ 1-P

943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behe
943 531 471
609 054 978

carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9
20850 Mendara

Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Aroztegia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

BIENA.S.L.

ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ITURGINTZA

ONGI iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

SANTANA



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
tienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA

San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

MIGUEL AZPIRI
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako
ordezkapenen konponketak.

635 133 841

**Berehalako zerbitzua
ematen da!**



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Errelatoaren garrantzia

Berriz ere bolo-bolo dabilta nerabeak guztion ahotan. Akaso, bidaiatzen ari diren bakarrak al dira? Parranda egiten ari diren bakarrak al dira? EZ! Baina migratzaileen antzera, ahots publikorik ez duen kolektiboa izanik, kategoria arrotz gisa kokatzen ditugu (gutakoak ez direnak) eta neurririk gabeko kritikak zuzentzen dizkiegu kale izkinetan zein komunikabideetan.

Ahaztu zaigu guztiok bizi izan dugula lagunartean grina, askatasun egarria, norbere arauak finkatzeko beharra nortasuna garatu nahian, urtez urte etxeko mugen malgutzearen negoziazio etengabea etab.

Urte t'erdiz alde batera utzi dituzte euren garapen beharrak guztion onuraren alde, guraso eta aiton-amonen osasunaren ardura bizkar gainean bota diegu (askok izendatu didate urte honetan zehar zeinen pisutsua den karga hori) eta ikasketetan izugarritzko gainesfortzua eskatu zaie metodologia eta plangintza berrietara argiaren abiadu-

ran egokitaraziz. Kurtso honetan zehar herri ezberdinetako ikastetxeetakoekin koordinatu izan naizenean guztiak azpimarratu dute lehen egunetik haur eta nerabeak eredugarriak izan direla babes neurriak mantentzen, klase presentzialak mantentze aldera prest zeudelako esfortzua egitera.

Nik neuk nerabeoi esan nahi dizuet izugarritzko sakrifizio gaitasuna erakutsi duzuela, inguruok zaintzeko zeuen beharrak alderatzeko gai izan zaretela modu eredugarrian eta merezita duzuela uda hau elkarrekin gozatzea. Eskerrik asko bihotzez gauzak errazteagatik!

*“Bidaiatzen ari diren bakarrak nerabeak al dira?
Parranda egiten ari diren bakarrak al dira? Ez!”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ MINTXETAKO BERDEGUNEARI BURUZKO PROIEKTUAN LANEAN JARRAITZEN DUGU

Mintxetako berdegunea urte osoan erabiltzea izan da EH Bilduk aurten landu duen proiektuetako bat. Proposamena udaleko kirol patronatura eraman zen han aztertzeko, eta denen artean proiektua garatzeko. Askotan esan dugun bezala, uste dugu oso garrantzitsua dela Mintxetako berdegunea irekita egotea elgoibartarrentzat urte osoan, modu horretan aisialdi gune bat irabaziko lukeelako Elgoibarrek, herritarrentzat aisialdi osasuntsua eskainiz. Proiektua Udaleria eraman genuenean, kirol patronatuko zuzendaritzatik txosten tekniko bat aurkeztu ziguten, gure proposamenak zituen zailtasunak azalduz. Eskertzekoa da proposamena jaso izana. Proposamen horretan ikusi zen ez zegoela gaindi ezineko zailtasunik, eta horregatik lanean jarraitu dugu zailtasun horiei irtenbidea aurkitzeko. Patronatuan ez da oraindik ezer ebatzi, eta lanean jarraitzen dugu proiektua gauzatzeko.

Esan bezala, zailtasun horiek denek irtenbideak dauzkate, eta horregatik EH Bildutik egoera horren aurrean egin beharrekoak planteatzen duen lan dokumentu bat aurkeztuko dugu berriz ere Udalean. Kirol patronatuan aurkezteaz gain, Hirigintza eta Herritartasun batzordean ere aurkeztuko dugu. Hirigintzan, Mintxetako berdegunea egokitzeak hirigintza aldeko esku-hartze batzuk eskatuko dituelako, eta Herritartasunean, proiektu honek herriko aisian izango duen eragina nabarmena delako, eta begi-bistakoa delako proiektu soziala dela. Espero dugu denen artean proposamena hobetuko dugula, modu horretan Elgoibarrek aisialdirako alternatiba berri bat izan dezan datorren udaberrirako.

EH Bildu

▶ HURRENGO GELTOKIA: MINTXETA

Astelehena da, uztailak 5. Autoko termometroak 31 gradu markatzen ditu, 16:00etan. Mintxetara noa, 4 urteko eta urtebeteko umearekin, autoz. IMHko bidegurutzeari harterako konturatu naiz besteetan baino auto gehiago daudela inguru horretan eta susmo txarra hartu diot egoerari. Asmatu dut: ez dago aparkatzeko tokirik, ez Mintxetan, ez Basarten eta ezta Erretsundi inguruan ere. Planak aldatu behar izan ditut. Ez gara igerilekura joango. Ume txikiari ez zaio inporta, baina bestea negar zotinka hasi da. Udalari egingo diot orain galdera: zergatik ez dauka Udalbusak geltokirik Mintxetan? Horrenbeste kostatzen al da Udalbusaren ibilbidean geltoki bat gehitzea Mintxetan? Garraio publikoa erabiltzearekin ahoa betetzen zaie agintariei, auto pribatua gutxiago erabili behar dugula esaten digute, baina jakina, horretarako, kalitatezko garraio publikoa behar dugu. Detale bat ahaztu zait: 6 euro ordaindu beharko nituzke umeekin Mintxetara joan-etorria egiteagatik, igerilekura sartzeko baino gehiago. Nire beroaldian beste ideia zoro bat ere bururatu zait: zergatik ez dute Mintxetako aparkalekua herritarrentzat gordetzen? Kostaldeko herrietan ere aparkaleku gehienak bertakoentzat eta udatarrarentzat gordetzen dituzte. Mintxetarako ere aukera ona izan daiteke, azken batean, elgoibartarrok Elgoibarren ordaintzen ditugu zergak eta aparkatzeko eskubidea izan beharko genukeela iruditzen zait.

Eta, azkenean, eskerrak eman beharko ditut aparkatzeko lekurik aurkitu ez dudalako, esan didatenez Mintxetako igerilekuan ere ez zegoelako lekurik, berriro ere. Uda hasi besterik ez da egin, hiru egun egin ditu beroak, eta hiruretan arazoak izan dira Mintxetan. Neurriak hartzeko garaiz zaudete oraindik.

A. A.

EXPRESS ESKAINTZAK!

TDA302801W
BOSCH PLANTXA



45,90 € • 2800 W

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Albitxuriko industrialdea zaborrez beteta lagatzen dute asteburuero: "Igandero-igandero horrela aurkitzen dugu Albitxuriko industrialdea. Lotsagarria eta nazkagarria da. Plastikoa, botilak, edalontziak... dena lurrean zehar botata. Zapatuetan ingurune horretan biltzen da jendea botila festa egiteko, eta gero dena zerri eginda lagatzen dute. Ez dago eskubiderik".



Ermuaranbide kalean espaloi gainean aparkatzen du jendeak: "Ikastolara ume bila joaten diren guraso askok espaloi gainean uzten dute autoa, lurrazpiko edukiontzien aurrean. Uste dute hor ez duela trabarik egiten autoak, baina egiten du, eta asko. Ikusmena kentzen dute, eta sustoren bat ere izan dugu horren ondorioz. Gainera, lurra altxatzen den zatian uzten dute autoa, eta hori azpitik hutsa dago, zuloa dauka, eta hondoratzeko arriskua dago. Udaltzainei ere esana diet behin baino gehiagotan, baina ez didate irtenbiderik ematen. Jendeari eskatu nahi nioke mesedez, ez dezatela autoa hor laga".



Errotaberriko eskailera mekanikoak aspalditik hondatuta daude: "Errotaberriko eskailera mekanikoak aspaldi hondatu ziren, eta Udaletik esan zuten, ez du merezi konpontzea, zaharrak direlako. Horren ordez, igogailua jarriko dutela esan zuten arduradunek, baina noiz? Eta bitartean, zer? Igogailua ez dute berehalakoan egingo eta denbora luzez egon beharko dugu horrela. Lotsagarria da!".

Txakurrak lotuta erabili behar dira Presapen umeak dabiltzanean: "Mendaroar asko aisialdi gune bat gutxiagorekin gelditu gara. Gustura joaten ginen Presapera bainua hartzera, baina txakur-jabe askok ere gustuko dute lekua, eta solte erabiltzen dituzte txakurrak umez beteta egon ohi den lekuan. Ez zaigu iruditzen horrenbeste ume dabiltzan lekuan txakurrak solte erabili daitezkeenik. Kargu hartu izan diogu txakur-jabe bati edo besteri, eta 'ez dute ezer egiten' izan da beti bueltan jaso dugun erantzuna. Iruditzen zaigu, hala ere, beldurra izatea bera badela nahikoa arrazoi halako aisialdi gune batean txakur-jabeari txakurra lotuta erabiltzeko eskatzeko, gutxienez jende gehiago gaudenean. Udalari gaia aztertzeko eskatu nahi diogu". Kexa udaletxean ere jaso dutela zehaztu du Iñaki Arregi alkateak eta ari direla gaia aztertzen, ahal den azkarren erabaki bat hartzeko.

Urazandiko goiko igogailua hondatzen denean, behean oharra jarri behar da: "Urazandin bi igogailu daude, eta goikoa sarri hondatzen da, baina beheko aldean ez dute ohartarazten. Azkenaldian pare bat aldiz gertatu zait gaiza bera: ume aulkiarekin lehenengo igogailua igo eta bigarrena hondatuta aurkitu dut. Tarte horretan ez dago gurgildun aulkia-ekin, erosketa gurdia-ekin edo ume kotxearekin igotzeko aldaparik, eskailera bakarrik daude. Berriz behera jaitsi eta buelta guztia eman edo eskailera igotzea dira une horretan dauden bi aukerak, biak ere, aukera txarrak. Ondo legoke horrelakoetan beheko aldean ohar bat jartzea, jendea ez dadin alferrik igo".

Debarreneko langabezia-tasa pandemia aurreko kopuru beretsuetan da

Debarreneko langabezia datuak eman ditu Debegeesak, eta horren arabera, gure eskualdeko langabezia-tasa %10,6koa izan zen maiatzean, iazko otsailan adinako (10,7). Emakumeen langabezia-tasari dagokionez ere ez da aldaketa nabarmenik izan: pandemia aurretik %13,3koa zen, eta orain, %13koa. Elgoibar eta Mendaro batezbesteko horren azpitik daude. Elgoibarren %9,5ekoa zen langabezia tasa iazko otsailan, eta 525 langabe zeuden, 327 emakume (%12,9) eta 198 gizon (%6,7). Mendaron, bestalde, %7,6koa zen langabezia pandemia aurretik. 78 langabe zeuden, 45 emakume (%9,4) eta 33 gizon (%6). Une honetan, pandemia aurrekoa baino hobeak dira Elgoibarko datuak, baina Mendaron aldiz, okerrera egin dute datuek. 2021eko maiatzean 492 langabe erregistratu dituzte Elgoibarren (%9), eta horietatik 303 emakumezkoak dira eta 189 gizonezkoak. Mendaron, aldiz, pandemia aurretik baino bost langabe gehiago daude orain, 83 guztira, eta emakumezkoak izan dira kaltetuenak, 52 baitira



orain langabezia dauden emakumeak Mendaron (iazko otsailan, 45).

Bailaran 3.675 langabe zeuden maiatzean, 2.144 emakume eta 1.531 gizonezko.

Bota dute ia 80 urtez Iriondo taberna egon zen eraikina



Makina bat urtean elgoibartarren bilgune izan zen Iriondo taberna egon zen eraikina bota dute aste honetan. Lanek ikusmin handia sortu zuten herritarren artean, Elgoibarko historiaren lekuko izan den taberna egon baitzen bertan. Remigio Iriondo eta Maria Ostolaza senar-emazteek 1942an zabaldu zuten Iriondo taberna eraikin honetan, eta ia 80 urtez Elgoibarko historiaren lekuko izan zen Iriondo taberna. Gazte zein helduen topagunea izan zen. 2020an itxi zuten taberna betirako, eta orain eraikina bera ere bota dute, etxe berriak egiteko.

EYEON proiektuak eskuratu du 2021eko IMH ekintzailtza saria

IMH ekintzailtza saria EYEON proiektuarentzat izan da aurtengoa, langileen segurtasuna hobetzeko osagai elektronikoz hornitutako garapen teknologikoko organigrama berriagatik. Kit hau 120 graduko ikuspen kamera batez osatuta dago, posizio sentsoreak eta guztiak HMI pantaila batera konektatuta daude (Human Machine kaptatzailea eta, beharrezkoa balitz, edozein oztupo detektatu). Enpresa baten kitak osatzen dituzten elementuak wifi bidezko plataforma batera konektatuta egongo dira. Enpresa plataforma horretan sartu egingo da mantentze-lanak egiteko, datuak biltzeko eta 4.0 industriarekin lotutako aurrerapenak egiteko. 11 proiektu aurkeztu dituzte guztira.



Lidergorik hartu ez izana eta gehiengo absolutua balu bezala gobernatzea egotzi dio Mendaroko PSE-EEK EAJri

Mendaroko EAJren bi urteko agintaldiaren balorazioa egin du PSE-EEK, eta herriko buzoietan ere zabaldu du idatzia, bi hizkuntzatan. Agirian, Mari Jose Telleria PSE-EEKo zinegotziak dio "zaila" egin zaiola Mendaron dagokion lana egitea, "EAJren udal gobernu ahula delako". Lidergorik hartu ez izana egotzi dio EAJri, bai eta gehiengo absolutua balu bezala jokatzeko ere: "Oposizioak proiektuak bultzatu arte itxaroten du, besterik gabe. Jarrera erosoan kokatu da, gehiengo absolutua duela iritzita, eta Covid-19ak eragindako egungo egoerak agintariei eskatzen dien lidergoa bere gain hartu gabe". Telleriak "oso kaskartzat" jo du EAJ egiten ari den kudeaketa, eta oposizioak egindako proposamenak eurenak balira bezala aurkeztea leporatu dio Iñaki Arregiren taldeari. Eta alkateari erreferentzia eginez, gehitu du: "Eta esfortzua eta dedikazioa eskatuta koloreak ateratzen dizkiogunean, gezurretan aritzea leporatzen digu".

PSE-EEK mendaroarren ongizatearen alde jardun duela jaso du Telleriak idatzian eta "modu eraikitzailean eta gardenean" jardun dela gehitu. Sozialistek eskatuta edo haien ekimenez abiatutako ekimenak ere aipatu ditu, besteak beste honakoak: Gizarte-larrialdietarako laguntzetarako partida Udalaren diru soberakinarekin osatzea teknikariek gainbegiraturako eskaera guztia bete arte, ospitalerako irisgarritasuna hobetzeko igogailua eraikitzea, etxebizitzak alokatzeko dirulaguntza bultzatzea, eta Gazte Plana bultzatzea, herriko gazteen emantzipatzeko eta enplegua topatzeko nahiz dituzten aisialdi arazoak konpontzeko. PSE-EEK EAJrekin negoziatu zuen aurrekontua eta kreditu aldaketa bat eginda, 60.000 euroko laguntzak jasotzea onartu zuten, Mendaroko enpresetan kontratazioa sustatzeko. Horren harira esan du deialdia "lehenbailehen" argitaratu dadin saiaturiko dela PSE-EE. Era berean, merkataritza-lokalak alokatzeko laguntzak bultzatzeko egindako lana ere nabarmendu du. "Merkataritza-sektoreak lanpostuak sortzen ditu, baina, gainera, oso garrantzitsua da udalerriko bizi-kalitatea mantentzeko eta hobetzeko". Horren harira esan du PSE-EEK udalbatzarrean parte hartzeak "enplegu aukera berriak" ekarriko dizkiola Mendarori.



'TicketBAI' ekimenari buruzko argibideak jasoko dituzte Mendaroko merkatariek hilaren 13an

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko hiru foru aldundien eta Jaurilaritzaren arteko proiektu bateratua da TicketBAI, eta betebeharrak legalak eta teknikoak ezartzeko helburuz sortu dute. 2022. urteko urtarilean jarriko dute indarrean, eta ordutik aurrera, jarduera ekonomiko batean diharduten pertsona fisiko eta juridiko guztiek fakturazio software bat erabili beharko dute, argitaratzen diren baldintza teknikoak betetzen dituenak. Sistema horri esker, foru ogasunek kontrolatu ahal izango dituzte zergadunen jarduera ekonomikoaren diru-sarrerak, eta bereziki, azken bezero diren jarduerenak. Era berean, informazio hori erabiliko dute zergadunek zerga betebeharrak bete ahal izan ditzaten. Eta guzti horren inguruko argibideak emateko, jardunaldi bat antolatu dute Gipuzkoako Merkataritza Ganberak eta Mendaroko Udalak herriko merkatarientzat uztailaren 13rako. Mendaroko udaletxeko udalbatza aretoan izango da saioa, 15:00etatik 17:00etara. Gaur bukatzen da izena emateko epea: kultura@mendaro.eus posta elektronikora idatzi edo 685 720 010 telefonora deitu behar da.

Energiaren Euskal Erakundeak 9.235 euroko dirulaguntza eman dio Mendaroko Udalari Ikastolan 96 eguzki-plaka instalatzeko

Ikastolako teilatuan 96 eguzki-panel jarriko ditu Mendaroko Udalak. 48.090,34 euroko (BEZ barne) aurrekontua du obrak, eta horietatik 9.235 euro Energiaren Euskal Erakundeak finantzatuko ditu. Plakak Ekilor enpresak instalatuko ditu, eta uda sasoi baliatuko du horretarako. Eguzki-plakak eskaintzen duten teknologiarik esker, plakak sortzen duten energia-korrontea korronte alferno bihurtuko da, eta zuzenean kontsumitu edo sare energetikoan sartu ahal izango da; horrela, urtean 3.400 euro aurretuko dira energia-kontsumoan. Ikastolako energia beharrei erantzun ahal izango zaio modu honetan eta sortzen den energia soberakinarekin 500 metroko erradioan dauden udal eraikinak ere hornitu ahal izango dira.

San Rokeko igogailu publikoa urtea amaitu baino lehen martxan egongo dela aurreratu dute udal arduradunek

Hasita daude San Roken igogailu publikoa eraikitzeke lanak eta Elgoibarko Udaletik jakinarazi dutenez, 2021a amaitu baino lehen jarriko dute martxan. San Roke kalea igerileku berrien gainean dagoen aparkaleku berriarekin lotu nahi dute proiektu honekin, igogailu baten eta eskailera publiko batzuen bidez, eta igogailu berriak San Roke eta Arregitorre azuen arteko irisgarritasuna hobetzea ahalbidetuko du. Udalak 263.536,65 euroko, BEZ gabe, inbertsioa egin du lanok gauzatzeko.

Olaizaga kiroldegiaren jatorrizko eraikinaren eta hego-mendebaldean dagoen handitze berriaren artean jarriko dute igogailua, eta San Roke kaletik edo kiroldegiko igerileku berrien estalkiaren gainean dagoen aparkalekutik sartu ahal izango da bertara. Zortzi plazako kristalezko kabina panoramikoa izango du eta 11,7 m inguruko altuera gaindituko du. Era berean, eskailerak ipiniko dituzte igerilekuak handitzeko eraiki duten eraikin berriaren aurrealdean.



Jon Peli Uriguenek EHBilduko bozeramaile kargua lagako du udazkenean



Hamalau urtez Elgoibarko Udaleko zinegotzi izan ondoren, udazkenean kargua lagako duela aurreratu du Jon Peli Uriguen. Zinegotzi izateaz gainera, Elgoibarko EH Bilduko bozeramaile da Jon Peli Uriguen (Elgoibar, 1968), eta bera izan da koalizioko alkategaia azkenengo udal hauteskundeetan ere. Uriguen 2007an sartu zen Elgoibarko udalbatzan, Eusko Alkartasuna alderdiko zinegotzi modura. 2011tik 2015era Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Diputatua ere izan zen Gipuzkoako Foru Aldundian, eta gaur egun ere batzarkidea da Gipuzkoako Batzar Nagusietako EH Bilduren taldean. Elgoibarko EH Bildutik jakitera eman dutenez, Aitziber Aranberrik ordezkaturako du Uriguen bozeramaile lanetan.

Bikefriendly saria jaso du Eibar-Maltzaga bidegorriak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentuak Bikefriendly 2021 saria jaso du *Bizikleta azpiegitura* kategorian Eibar-Maltzaga bidegorriaren proiektuagatik. Bizikletaz "azkarrago, seguruago, erosuago, koherenteago eta intuitiboago" zirkulatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta zerbitzu berriak diseinatu eta bultzatzeagatik saritu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Departamentua. Rafaela Romero foru arduraduna pozik agertu da sariarekin, eta esan du sari honek "lurraldea bizikleten mugikortasunaren erreferente gisa" finkatzen duela. Foru Aldunditik azaldu dutenez, sari honek Eibar-Maltzaga bidegorriaren exekuzioan egindako lana aitortzen du, Ingeniaritzarako mugarriztat jotzen dena, 2,1 kilometroko luzerarekin oztopo tekniko handiak gainditu behar izan dituelako, orografiagatik eta dagoeneko martxan dauden azpiegiturengatik.





1968

Aste honetako erretratu zaharra Jose Ramon Esnaolak ekarri du BARRENERA. Altzolako eskola aurrean aterata dago, eta erretratuan ageri dira urte hartako eskola-umeak. Adin desberdinetako umeek elkarrekin ikasten zuten orduan. Nagusienek 12 bat urte izango zituzten. Gogora ditzagun argazkiko mutikoak zeintzuk diren:

Goiko ilaran: Jesus Mari Zabala, Benantzio Lariz, Jose Migel Gorriti, Jose Ramon Esnaola, Juan Kruz Oteiza, Jesus Urbieta, Txus Diez (+), Floren Garcia, Juan P. Huidobro eta Jesus Mari Plazaola. **Erdian:** Josu Lariz, Roberto Zearsolo, Rikardo Huidobro, Iñigo Irusta, Jose R. Gorriti, Javier Iriondo, Angel Esnaola eta Patxi Gorriti (ziburuan). **Behean:** Jose A. Ostolaza, Fernando Diez, Jose Moreno, Arturo Rivas, Pinilla, Eusebio Morales, Jon Ander Plazaola, Jesus Garcia eta Txano Morales.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Reaprendelari zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartan.



“Gazte gehienentzat futbola dena da niretzat dantza”

▶ ENEKO ETXANIZ DANTZARIA

Odolean darama Eneko Etxanizek dantza. Familiatik dator kio dantzarako, eta, oro har, kulturarako zaletasuna, eta ume-umetan hasi zen dantzan. Inazio Bereziartua Dantza Eskolako ikaslea da, eta azken urteotan txapelketetan ere lehiatzen da. Txapelak ere jantzi izan ditu, azkena oraintsu, berak irabazi baitu Gazteen Mailako Aurreratu Txapelketa Nagusia, gipuzkoar eran. Aurrera begira ere dantzan jarraitu nahi du, pausoz pauso, bidea egiten, dantzaren sokari helduta.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ Gazteen Mailako Txapelketa irabazi berri duzu.

Bai, gipuzkoar erako txapelketa irabazi dut. Euskal Herri osoko gazteek hartu dezakete parte berez, baina gehienok Gipuzkoakoak izaten gara txapelketa honetan. Gazteen Mailan aurtengoa izan da nire azkena, datorren urtean nagusien mailan hartuko dut parte, eta salto handia izango da. Horrelakoetan beti igartzen da alde.

♦ Nondik dator kizu dantzarako zaletasuna?

Familiatik, bai amaren aldekoak eta baita aitaren aldekoak ere oso kulturzaleak dira. 2 urte nituenerako hasi nintzen ni dantzan etxeko egongelan, amamarekin, eta 6 urterekin hasi nintzen dantza eskolan. LH5ean nembilela, txapelketetan hasi nintzen.

♦ Denbora asko eskaintzen diozu dantzari?

Ahal dudana. Lehen gehiago, agian. Balletera eta aerobikera ere joaten nintzen, baina orain horiek utzita ditut. Dantza eskolak astean bi egunez edukitzen ditut, eta gero, tarteka txapelketa. Koronabirusak dena aldatu du, eta dantza eskolarik gabe egon gara hainbat hilabetetan, baina nik konfinamenduan ere ia egunero egiten nuen dantzan. Ordenagailuan jartzen nituen dantza ezberdinak eta nire kontura dantzatzeko nituen.



◆ **Balleta, aerobik, euskal dantza... denetik egiten duzu.**

Bai, niri dantza gustatzen zait, bere modalitate guztietan, eta uste dut dantza batek besterako ere laguntzen duela. Modalitate baten lantzen denak, besterako ere balio du. Osagarriak dira bata bestearekin, eta baten ikasitakoa ondo etortzen da besterako ere. Baina zaletasun gehiago ere badituz: pilota, musika, igeriketa... astegunetako arratsaldeak bete-beteak izaten dituz, eta beti ibiltzen naiz batetik bestera korrika. Momentuz ikasketekin ere ondo moldatzen naiz, baina egunen baten agian zerbait laga egin beharko dut. Saiatzen naiz dena pasioz egiten, baina egia da denari ezin diodala dedikazio bera eskaini. Aurten esaterako, dantzan ondo ibili naiz, baina pilotan nahiko urte txarra izan dut.

◆ **Udan ere ez duzue oporrik hartu. Beharrezkoa da ahalik eta etenik txikienak egitea?**

Irailean daukagu hurrengo txapelketa eta garrantzitsua da udan ere entseatzea. Irailean txapelketa bat dugu eta azaroan beste bat.

◆ **Haritz dantzari taldea daukagu Elgoibarren. Gustatuko litzazuke bertako kide izatea?**

Bai, jakina. Baina oraindik ezin dut. Gu Inazio Bereziartua dantza eskolako dantzariak gara. Normalean Batxilergoko lehenengo mailan ematen da Haritzerako pausoa, baina ez dakit gure kasuan noiz eta nola izango den. Nik nahi dut aurrerantzean ere dantzan jarraitu eta asko gustatuko litzaidake Haritzeko kide izatea. Haritz dantza taldean dantza berriak ikasteko aukera izango nuke, Gipuzkoatik irten eta beste probintzietan dantzatu... Niri betidanik gustatu izan zait dantza eta beti identifikatu izan naiz dantzarekin. Kirola ere gustatzen zait, eta pilotan eta igeriketan ere banabil, baina dantzak eta kulturak beste zerbait ematen didate; nik horrekin gozatzen dut. Sortzea eta kontsumitzea gustatzen zaizkit. Dantzatzea beste gustatzen zait dantzak ikustea; bertsoak idaztea, kantatzea eta entzutea ere gustatzen zait, musika ere bai... tronboia jotzen dut, gazteen txaranga ere banabil, eta asko gustatzen zait. Beste gazte askorentzat futbola dena da niretzako dantza. Elgoibarren gazte gehienak futbolearen hasten dira, baina iristen da puntu bat ezin dutena aurrera jarraitu, futbolarik ez duelako denentzako aukera ematen, baina dantzari etorkizun luzeagoa ikusten diot, aurrera jarraitzeko aukera gehiago ematen du. Hala ere, zaila dauka dantzak kirolarekin konpetitzen.



Gazteen artean, lagunartean arrakasta gehien duena beti da futbolearen edo eskubaloian onena dena; kirolak prestigio handiagoa ematen du dantzak baino. Gizarte honek mailak sortu ditu, eta dantza bigarren maila batean jarri du. Nesken artean agian ez horrenbeste, maila mutiletan dantzan edo pinturan ibiltzea ez da horrenbeste baloratzen.

◆ **Zer ematen dizu dantzak?**

Ni batez ere geratzen naiz beste dantzariekin lortu dudan harremanarekin, bai herrikoekin eta baita beste herrietakoekin ere. Txapelketetan aritzen garen Elgoibarko dantzariok lagun giro oso ona daukagu eta oso polita da. Batzuk dagoeneko ez dabilta txapelketetan baina hala ere mantentzen dugu harremana. Ordu asko eman ditugu elkarrekin, eta lagun talde polita daukagu. Txapelak ere etorri dira, etapen baten amaiera moduko bat izan da txapelak lortzea, eta hori hor geratuko da betiko, oroitzen oso ona izango da, baina hori ez da garrantzitsua. Dantzak erakutsi dit baita ere jende aurrean moldatzen. Azken batean oholtzara irten eta jende aurrean zu bakarrik egote horrek ere ausardia puntu bat eskatzen du, eta dantzak hori ere erakusten du. Urduritasuna normala da, eta gainera iruditzen zait nerbioak beharrezkoak direla jende aurrera iriteteke. Kultur ekitaldietan transmititu egin behar zaio publikoari eta iruditzen zait nerbio puntu batekin gehiago transmititzen dela, erabat lasai egonda baino. Helburua ikusleak gozatzea da eta norberak gozatzen duen mailan gozarazten du ikusle ere. Norberak gozatzea da garrantzitsua. Txapela irabazteak azkenean erakusten du helburuak ondo barnerratu ditudala, baina hori baino garrantzitsuagoa da niretzat dantzak ematen duen satisfazioa. Nik dantzan egiten dut, horrekin gozatu egiten dudalako. Nire ustez dantzari onena ez da ondoen dantza

*“Nire ustez
dantzari onena
gehien disfrutatzen
duena da”*



egiten duena, baizik eta gehien gozaten duena eta publikoari gehien transmititzen diona. Plazagizona naizela esan izan didate beti, baina ez dakit benetan banaizen. Ekintzetan parte hartzekoa izan naiz beti, dela marrazki lehiaketan, bertotan edo dena delakoan, eta horrek azkenean ekarri dit jende aurrera irten beharra.

◆ Zein da gehien gustatzen zaizun dantza estiloa?

Ez nuke bakarra aukeratuko. Guk gipuzkoar erara dantzaten dugu, eta horiek dira gehien ezagutzen ditudanak, baina Euskal Herriko probintzietan dantza mota pila bat daude eta denak dira oso interesgarriak. Konfinamenduan Euskal Herri osoko dantzen

bideoak ikusi nituen, eta asko gustatu zitzaizkidan Bizkaiko *Arratia* edo Zuberoako *Godaleta*, adibidez.

◆ Non ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Epe laburrean, Haritzeko kide izatea nahiko nuke, eta hortik gora Donostiako Argia dantza taldea eta Gari Otamendi dantzaria dira niretzako erreferente. Nire amaren lehengusu Oier Araolaza ere erreferente bat da niretzat. Tesia dantzaren inguruan egin du eta bere ibilbide profesionala dantzaren alorrean egin du. Bide luzea daukat aurretik, eta bidean agertuko zaizkidan aukerak eta topatuko ditudan oztopoak ere ez ditut ezagutzen, beraz, etorri ahala joango naiz erabakiak hartzen.

Jon Lizarralde, dantzaria eta dantza irakaslea

20. edizioa izan du aurten Elgoibarko Auresku eta Soinu Zahar txapelketak. Jon Lizarralde hasieratik egon da txapelketaren antolakuntzan, eta horrez gain, Elgoibarko dantzariak prestatzen ditu txapelketetarako. Etorkizun oparoa ikusten dio dantzari Elgoibarren.

◆ 20 urte bete ditu Elgoibarko txapelketak. Hasi zinetenean espero zenuten horrelakorik?

Hasten zarenean inoiz ez dakizu noraino iritsiko zaren! Elgoibarkoak 20 urte egin ditu, baina auresku eta soinu zahar txapelketekin hasi ginela 22 urte dira. Bi urtetan beste herri batzuetan antolatu genituen eta gero esan ziguten ea animatuko ginen Elgoibarren antolatzen, eta horrela hasi ginen.

◆ Nola aldatu da txapelketa denbora honetan?

Hasieran mutilek aureskua dantzaten zuten eta neskek soinu zaharra, baina orain dela hiru urtetik denek dantza berberak dantzaten dituzte. Aldaketa handia izan da, baina nik ondo ikusten dut. Adin batetik aurrera mutilek indar handiagoa izaten dute, baina neskek, aldiz, malguagoak dira. Poliki-poliki joan gara egokitzen eta orain denek dantzaten dituzte dantza berberak. Haritz dantza taldean ere lehen bereiztu egiten ziren nesken eta mutilen dantzak, baina orain bateratasun bat eman diogu taldeari eta denok hartzen dugu parte dantza guztietan.

◆ Nola ikusten duzu dantzaren etorkizuna Elgoibarren?

Musika Eskolan jende dezente dabil dantza ikasten. Egia da urte batzutan izan ditugula ikasle gehiago, baina gaur egun gazteek eskolaz kanpoko ekintza asko dituzte aukeran, eta batzuek dantza aukeratzen duten bezala, beste batzuek kirola edo dena delakoa aukeratzen dute. Orduetegiak antolatzeko ere zailtasunak izaten ditugu, ikasleek gauza askotan ematen dutelako izena, baina pozik gaude. Osasun ona du dantzak Elgoibarren. Batzuk beste batzuk baino gusturago etortzen dira, hori hala da. Ikusten da batzuk denbora-pasa etortzen direla eta beste batzuek serioago hartzen dutela. Nik beti



“Osasun ona du dantzak Elgoibarren”

esaten diet erakustera natorrela eta erakusten didan hori berriantzat izango dela, eta ez niretzat. Askotan errepikatzen diet ez dutela niretzako dantza egiten, baizik eta berriantzat. Hau bizitzaren eskola da. Bizitzan ere esfortzurik gabe ez dute ezer lortuko, eta hortaz konturatzea nahi dut. Ez dakit zenbat denbora egongo diren gurekin ikasten, baina behintzat dauden denbora ondo aprobetxatzea nahi dut nik. 16 bat urterekin ematen da Haritzerako jauzia, eta batzuei horrek beldurra ematen die, baina esan nahi diet ez beldurtzeko, ikasteko gaudela denok hemen, eta Haritz gauza berriak ikasteko oso gune aproposa dela. Ni 21 urterekin hasi nintzen Haritzen, eta 40 urte egin ditut aurten taldean. Gazteak gogor datozela esango nuke, maila ona dago Elgoibarren.



Ibilgailuen gehigarria

Eguraldi ona iristearekin batera, milioika ibilgailu irtengo dira errepidera. Eta komeni da kontuan hartzea horietako asko denbora luzez geldu egon diren autoak izango direla, eta horregatik, bidaia luze bat abiatu aurretik garrantzitsua dela egoera onean daudela egiaztatzea, ezustekorik izan ez dezagun.

Inkesta baten arabera, autoa izango da hurrengo oporretarako eta ihesaldietarako garraio biderik erabiliena. Baina autoa hartu aurretik, komeni da, esan bezala, oinarrizko kontu batzuk zaintzea eta autoak behar dituen mantentze-lanak egitea. Bai eta dokumentazio guztia behar bezala daukagun egiaztatzea ere, tartean Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartela irautsi ez dela egiaztatzea. Beti da gomendagarria tailerrera bisita bat egitea eta mekanikari profesionalek aztertzea gure autoa. Hala ere, badira guk geuk egiazta ditzakegun elementu batzuk. Azken urtean, errepideko matxurak %125 inguru igo direla antzeman da eta matxura horietako gehienak ibilgailua behar bezala zainduta ez zegoelako gertatu dira. Horietako asko, beraz, saihestu zitezkeen autoa tailerrera eraman izan balute.



ESARRI AUTOAK MULTIMARKA

Olaso, 17 (Elgoibar)

HYUNDAI - MAZDA - MULTIMARKA ZERBITZUAK



Aitor: 606 975 730 - Anton: 680 356 573
943 741 480

esarriauto@gmail.com



Gertutasuna eta aholkularitza profesionala, lehenetasun



Gaur egun Citroen Zaer Motor izenez ezagutzen dugun auto kontzesionarioa 1988. urtean zabaldu zuen Santa Klara auzoan Arkaitz Urigoitiaren familiak. 1993. urtean Eibarrera aldatu zuten enpresa eta 2015. urteaz geroztik, KIA etxeko autoak ere saltzen dituzte bertan. Naia Car izena jarri zioten kontzesionario berriari. Eta badira 7 urte Arkaitz Urigoitiak zuzentzen dituela bi enpresak: lehenengo Zaer Motor, eta 2015 geroztik, Naia Car ere bai. Bigarren belaraldiak, Arkaitz Urigoitiak, hartu du beraz Zaer Motor eta Naia Car auto kontzesionarioen ardura, bere emazte Nerea Indarekin batera.

Egungo auto kontzesionarioen munduan aldaketa asko egon dira. Gaur, inbertsore handiak dira auto kontzesionarioak, marka asko saltzen dituzten taldeak, baina Naia Car eta Zaer Motor beste gauza bat dira. Familia enpresa dira, txikiak eta gertukoak, eta bi markarekin lan egiten dute. “Gure lehenetasunetako bat bezeroari arreta zuzena eta gertukoa eskaintzea da. Bezeroei behar beste aholku eman eta saiatzen gara haien neurrirako zerbitzua ematen. Horixe da gure indargunea eta gure eginahal guztiak horretara bideratuta daude. Bezero gisa datoz atean barrura gurera, eta lagun gisa irteten dira”, dio Arkaitz Urigoitiak.

Gauza jakina da Interneten egotea ezinbestekoa dela gaur eta mundu digitalerako pausoa ematen ari dira bi markekin ere. Hala ere, garbi dute beren balioa beste bat dela: zerbitzu gertukoa eta aholkularitza profesionala ematea, bai salmenta postuan eta baita tailerrean ere. “Hartu-eman zuzena da gure ezaugarrietako bat eta saiatzen gara bezeroa eroso sentiarazten. Ahoz ahoko publizitatea da gure lagunik onena, eta hala etortzen zaizkigu bezero berri asko ere: entzundakoa gustatuta. Horrek izugarri pozten gaitu, ondo ari garen erakusle delako”. 2020an lehen aldiz, Gipuzkoako merkatu partikularrean lehen tokia hartu zuen Kiak. Naia Car sortu

zenezan, Kia ez zegoen postu gorenetan, baina urte gutxiren buruan, gorengo postua eskuratzeak asko esan nahi du.

Bezeroak ez du berehalakoan ahazten bidea. Izan ere, autoa erosten duenak bertara eraman ohi du normalean autoa konpontzera edota aldi behingo azterketa teknikoak egitera. Zerbitzu osoa, konpletoa (salmenta, tailerra, karrozeria..), ematen dute. Eta tailerrean ere, behar beste azalpen ematen dizkiete bezeroei, profesionaltasun osoz. “Konfiantza osoa dute gure lanean, bezeroaren beharrak ase arteko onik ez dugulako izaten”.

Autoa eroatera doana, gaur, informazio askorekin joaten zaiela dio Urigoitiak. “Informazio asko bildua izaten du bezeroak autoa eroatera datorrenean eta askotan probatzea baino ez du nahi izaten, baina gure lana bezeroari entzutea eta aholkatzea da, eta askotan, buruan ideia bat dutela etortzen dira eta beste batekin joaten dira. Aholkulari lanak egiten ditugu eta haien beharretarako egokienak diren aukerak aurkezten dizkiegu”.

Bezeroek, sarri, prezioari begiratzen diote soilik, autoaren ezaugarriei behar beste arreta jarri gabe, baina gauza bat hartu behar da kontuan: erosten denean izaten dela autoa berrien eta mantentze-lanak behar izaten dituela gerora. Eta hori, autoak behar duen zaintza hori, bai eta bezeroak merezi duen mimoa nahiz bezeroari zor zaion konfiantza hori, guztiz bermatuta dago gertuko saltokietan eta normalean zaila izaten da talde handietan holako tratu hurbilekoa jasotzea. Tratu guztiz familiarra. Konfiantza eta mimoa aipatu ditugu, baina batu horri denbora ere. Denborak ere asko balio baitu, eta bertatik bertarakoetan aurrezten den denborak ez baitu preziorik.

Zoaz bada Zaer Motor edo Naia Car-era. Hantxe duzu zain zuk behar duzun autoa; hantxe jasoko duzu merezi duzun arreta eta aholkularitza zerbitzua!



Apalategi, 1 EIBAR
943 707 033



Kia-ren gama SUV.

Abantaila eksklusiboak uztailaren 19ra arte.



12.250 €-tik aurrera**

Ezagutu gure eredu guztien bertsio elektrifikatuak,
eta baliatu MOVES III Planaz.



Apalategi, 1 EIBAR
943 707 033

WLTP (g/km) eta CO2 emisio konbinatuak: 110-203. WLTP (l/100 km) kontsumo konbinatua: 4,8-9.

** PVPR Kia Stonic 1.2 dpl Concept (zergak, garraioa eta sustapen-ekintzak barne). Ez ditu gestoria eta matrikulazio gastuak barne hartzen. FlexiPlan kanpainaren bidez, Banco Cetelem SAUrekin gutxienez 10.000 € finantzatzen dituzten partikularrentzako eskaintza. Epea eta gutxienezko egonaldia, 36 hilabetekoa. Eskaintza hau bateraezina da beste finantza-eskaintza batzuekin, eta uztailaren 5etik 19ra balio du Penintsulako eta Balear Uharteetako kontzesionarioetan. Bistaratutako eredia ez dator bat eskaintakoarekin.



KRESALACARAVAN

www.kresalacaravan.com

Erretsundi 2, solairuartea - 20870 Elgoibar

info@kresalacaravan.com

688 803 185



Bizi esperientzia ahaztezin bat

Maria Salegik eta haren etxekoek urteak daramatzate autokarabanaz bidaiatzen; autokarabanero-familia gisa definitzen dira. Oso maite dute bidaiatzeko modu hau, eta kutsakorra da haien pasioa. Nolanahi ere, eta autokarabanaz bidaiatzea modan egon arren, Mariak garbi du bidaiatzeko modu hau ez dela mundu guztiarentzat egina, baina, hala ere, nabarmendu du probatzen duenak ez duela gero beste ezer nahiko; katigatuta geldituko dela, liluratuta.

Autokarabanaz bidaiatzek askatasuna ematen du, eta horixe du ezaugarri nabarmenena. Ordu-tegi –eta mugimendu– askatasuna ematen du, eta planak nahierara aldatzeko aukera. Leku batek liluratuz gero, hango egonaldia luzatzeko aukera ematen du, hamabost egunerako diseinatutako plana aldatuta. Izan ere, gustuko lekuan hamabost egun ez, hogeita hamar ere pasa daitezke beste ezeren beharrik sentitu gabe!. Planak albo batera utzi, eta ordutegirik eta bestelako loturarik gabe, hemen eta oraina bizi-tzeko askatasuna ematen du etxea aldean eramateak. Autokarabanaz bidaiatzen duenak ez du afaltzeko leku bila ibili beharrik, ez eta lotarako leku bila ere. Maria Salegik garbi du: oin bat autokarabanen sartzetarako, oportetan dagoen sentazioa izango du bidaiariak. Are, oportetarako bidea bera atseginagoa egingo zaio, eta ondorioz, bidean egin beharreko orduak ez zaizkio ordu-galdu irudituko.

Kresala Caravan aukeratzen duenak, gainera, bidai-laguna izango du ondoan 24 orduz, autokarabanaz bidaiatzen horrenbeste urte egin duenak edota hainbeste bezerorekin lan egin duenak berehalakoan ulertzen dituelako bidaiaren gerta daitezkeen gorabehera guztiak eta telefono-dei bat egitea nahikoa duelako bidairiari laguntzeko. Bezeroen %85 berriak dira autokarabanaz bidaiatzen, eta normala da zalantzak izatea, baina laguntzeko daude Kresala Caravanen. Autokarabanak ere berriberriak dira, hiru urtean behin berritzen dituztelako. Zer gehiago behar duzu autokarabanero familiako egiteko?

Autokarabanaz bidaiatzeko pisuzko sei arrazoi

1. Askatasuna: Norberak antolatzen du bidaia eta norberak zehazten du erritmoa ere. Autokarabanaz bidaiatzek ordutegi-eta mugimendu-askatasuna ematen du. Bidaia agentziekiko morrontzarik ez du autokarabanaren alde egiten duenak.

2. Familia osoarentzat: Familiako kide guztiak elkarrekin egoteak harremanak sendotzen laguntzen du, familiako kideen arteko elkarriketak sustatzen direlako. Garraibide aproposa da haurrentzat, bai eta maskotentzat ere.

3. Turismo nazionala edo nazioartekoa. Autokarabanak turismo nazionalerako pentsatuta dauden arren, arazorik gabe bidaiatu daiteke inguruko beste herrialde batzuetara. Gainera, Europako Batasunean ez da pasaportetik behar herrialde batetik bestera mugitzeko.

4. B baimena aski da autokarabana bat gidatzeko. Oker zeunden autokarabana bat gidatzeko gidabaimen bereziren bat izan behar zenuela uste bazenuen; ezin da errazagoa izan autokarabana bat gidatzea! Autoak gidatzeko baimena nahikoa da.

5. Itsasoa, mendia edo biak. ‘Itsasalderra joango gara, ala mendira?’ Aukeratu egin behar izaten dugu normalean, baina autokarabanaz bidaiatzen duenak ez du aukeratu beharrik. Egunsenti eta ilunabar zoragarriak izango ditu eskura. Luxua!

6. Dirudiena baino erosoa. Egungo aurrerapenekin, autokarabana batean era guztietako erosotasunak, funtzioak, teknologia, etab... topatuko dituzu. Autokarabana batean, etxean egingo zenukeen ia guztia egin dezakezu, baina beti leku txikiagoan zaudela kontuan izanda.





LERUN

Ford Lerun, erreferentziazko kontzesionarioa. Gertukoa eta konfiantzazkoa



1985. urtetik erreferentziazko kontzesionarioa eta tailerra da Elgoibarren eta inguruotan Ford Lerun, Ford etxearen agente ofiziala. Florencio Angulok zabaldu zuen, Deba kalean, eta duela hogeit bat urtetik hona, Jon semearekin batera darama guztiaren ardura. Familia-negozioa da, eta arreta-zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dute. Horretxek bereizten ditu. Ford Lerunen jabeek eurek atenditzen dute bezeroa eta esan gabe doa inplikazioa beste bat dela. Gertutasuna, konfiantza eta mimoa. Hara hor Ford Lerunen hiru balio; hara hor bezeroa betiko lotzen duten hiru amu.

Duela lau bat hilabetetik, gainera, km0-ko autoak ere sal-tzen dituzte bertan. Marka guztietako autoak dituzte aukeran, behar bezala aztertuta eta berme osoarekin. Bezeroak zer behar duen, huraxe ekartzen diote Ford Lerunen. Ahaztu beraz kezka guztiez, ahaztu han-hemen bila ibiltzeaz. Zein ezaugarritako autoa behar duzun eta zenbateko aurrekontua duzun zehaztu, eta Ford Lerungo profesionalak zure beharretara egokitutako autoa jarriko dizute atean.

Saldu ez ezik, saldu osteko zerbitzua ere ematen dute Ford Lerunen. Aldian behingo azterketak, konponketak... behar

duzun guztia jasoko duzu; baita finantziario aukera malguak ere. *Konfiantza eman eta jaso* da haien leloa, eta bezero fidele-nak zaintzen eta saritzen saiatzen dira. “Nahi izanez gero, autoa tailerrean lagatzeko aukera ematen diegu bezero fidelei eta guk geuk eramaten ditugu autoak Ibilgailuen Azterketa Teknikoa pasatzera. Bezeroek gugan jarritako konfiantza eskertzeko modua da”, diote.

Zure autoak behar duen estetika zentroa

Bezeroak bezala, autoak ere mimo handiz zaintzen dituzte. Mekanika, karrozeria, tapizeria... zure autoak behar duen estetika zentroa topatuko duzu Ford Lerunen. Garbiketa zerbitzua ere badute. Kanpo nahiz barru garbitzen dituzte autoak, eta berri-berri utzi. Koronabirusaren pandemiak erakutsi du zein beharrezkoa den garbitasuna eta Ford Lerunen ozono-gailuak erabiltzen dituzte autoaren barrualdeak sakon garbitzeko. Itxura ez da dena, baina itxura ere bada garrantzitsua, eta autoko tapizatua ere berritzen dute, larrua nahiz larrua ez dena josteko makina bereziekin. Zer gehiago behar duzu?

ZURE AUTOARENTZAKO ESTETIKA ZENTROA

**Estreinatu autoa.
Konpletoena +
ozono bidezko
desinfekzioa**



199€



225€



225€

1. SORTA

Tapizeriaren garbiketa sakona + jarlekuak + barrualde detailatua + kanpoaldea

75€

84€

93€

2. SORTA

Autoaren barrualdearen zein kanpoaldearen osoko garbiketa + ozono bidezko desinfekzioa

109€

119€

129€

OINARRIZKO SORTA

Autoaren barrualdearen zein kanpoaldearen osoko garbiketa

32€

36€

46€

Ozono bidezko desinfekzioa + Auto-argiak fintzea (banaka) + Larruzko eserlekuak eta beste hidratatzea

19€

35€

30€

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

www.autoeskolalarranaga.es

ELGOIBAR - Santa Ana Kalea, 11, behe
943 741 011 - Mirian Irurzun Rodriguez

BERGARA - Mahasterreka Kalea, 10
943 761 663 - Laura Beristain Fontecha



Gidatzen ikasteko, zatoz Larrañaga Autoeskolara!



Pedro Larrañagak sortu zuen Larrañaga Autoeskola, baina gero Jose Ramon Irurzun Ayerra batu zitzaion eta bien artean gaur egungo Larrañaga Autoeskola sortu zuten. Eta lehenengo egunetik bertatik, egiteko bat izan dugu gurean: gidatzen ikastera datozen ikasleei ahalik eta arreta pertsonalizatuena eskaintzea, ahalik eta gidari onenak izan daitezten. Gaur egun, bi egoitza dauzkagu, bata Elgoibarren eta bestea Bergara-

an, eta Mirian Irurzun Rodriguez eta Laura Beristain Fontechak ematen dute arreta zuzena haietan.

Izan ere, eta pandemia garaiotan on-line eskolek indarra hartu badute ere, gurean, harreman zuzena lehenesten dugu, aurrez aurrekoa, izan bakarkako saioetan nahiz taldekoetan. Gidatzen ikastea ez baita memorizatzen ikastea. Azterketa gainditzea nahitaezkoa da, baina Larrañaga Autoeskolari garbi daukagu ikasleek arauak ulertu behar dituztela, ikasitakoak luze iraungo badie, eta gure onena jartzen dugu egiteko horretan. Izan ere, ibilgailu bat eramaten jakitea baino gehiago, jokabide arauak barneratzea da gidatzen ikastea. Gidari asko gaude, gero eta gehiago, eta arauak zenbat eta barneratuago izan guztiok, orduan eta errazagoa eta erosoagoa izango zaigu gidatzea eta ezbehar gutxiago izango dira gure errepideetan. Hori da gure helburua, eta emaitzek erakusten digute bide zuzenean goazela. Azterketa teorikoa nahiz praktikoa gainditzeko dutenen kopurua oso ona da gurean eta irakasleen eta ikasleen arteko talde-lanean dago horren arrazoia. Horra hor bereizten gaituen ezaugarria, horra hor gure bezeroek gugandik azpimarratzen dutena, horra hor zuri eskaintzeko daukaguna.

Zazpi arau biribilgune batean zuzen zirkulatzeko

1. Errotonda baten barruan dauden ibilgailuek dute beti lehentasuna. Sartzean, beti utziko dugu bidea.
2. Biribilgune barruan zaudela, ez hartu sekula kanporako bidea barruko erreitik. Behar besteko aurrerapenez kokatu behar gara beti eskuineko erreian.
3. Biribilgunera eskuineko erreitik sartu behar da beti.
4. Zuzen bazoaz, ez erabili biribilgunea bideen elkargune balitz bezala, hori da arriskutsuena. Ez da inoiz erreirik gurutzatzea behar.
5. Biribilgune batetik lehenengo irteeratik eskuinera edo zuzen irten behar badugu, eskuineko erreian jarriko gara beti. Aldiz, ezkerreko erreitik irten behar badugu edo 360 graduko bira egin behar badugu (noranzko-aldaketa), eskuineko erreitik sartuko gara beti, eta ezkerreko erreira sartuko gara pixkanaka, eta eskuinera itzuliko gara irteerako, kontu handiz beti ere.
6. Keinukaria erabili behar dugu beti errotondatik irteerara goazela adierazteko, bai eta biribilgunearen barruan erreiekin aldatu behar dugula adierazteko ere. Ez dugu erabiliko zuzen jarraitzen dugula edo biribilgunean jarraitzen dugula adierazteko.
7. Biribilgune batean eskuineko erreitik zirkulatzeko badugu eta bertara sartu nahi duen ibilgailu bat ikusten badugu, ez da derrigorrezkoa erdiko edo barruko erreira joatea, baina, ahal den neurrian, beste ibilgailu batzuei sartzen lagundu behar diegu.





Badakizu nola prestatu autoa bidaiari irten aurretik?

Bidaia batera irten aurretik, kontu asko hartu behar ditugu kontuan gidariok. Ordutegia, bidaiari kopurua, haien ezaugarriak eta beste zaintzen ditugun moduan, autoa bera ere egoera onean dagoela egiaztatu behar dugu. Akats mekaniko baten ondorioz gertatzen diren istripuen % 60 pneumatikoak gastatuegi egotearen ondorio dira. Edozein bidaia hasi aurretik, ibilgailuaren oinarritzko sei alderdi egiaztatu behar ditugu, batez ere egin beharreko distantzia ertaina edo luzea denean.

1. Olio-maila. Motorra hotz dagoela egin behar da, lur lauan eta horizontalean. Gutxienekoaren azpitik badago, ez da bidaia hasi behar. Olio gehitu eta tailer batera joan behar da, galeraren arazoia aurkitzeko. Gainera, olio aldizka aldatzea komeni da, fabrikatzaileak adierazitakoaren arabera: minerala 5.000-7.500 km, erdisintetikoa 8.000-12.000 km eta sintetikoa 20.000-30.000 km.



2. Likido hozgarriaren maila. Berriz jarri behar bada, motorrak erabat hotza egon behar du, eta inola ere ez dugu iturriko urik gehituko, likido hozgarria baizik, 2 edo 3 urtean behin ordezkatu beharko dena.

3. Argiztatzeko gailu guztiak, bereziki argi laburrak, ahalik eta altuenak izan behar dira, baina gainerako erabiltzaileak itsutu gabe. Komeni da gogoratzea gauez argitutako eremuan gelditzeko moduko abiadura zirkulatu behar dela.

Argi estandarrekiko ikuspena hobetzen duten lanpara halogenoak badaude.

4. Balazta-likidoaren maila. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ez da biltegia ireki behar hori egiaztatzeko, likidoa egiten den bakoitzean hezetasuna xurgatzen baitu eta ezaugarriak galtzen baititu. Maila minimoaren azpitik dagoela ohartuz gero, garabi bati deitu edo tailer batera joan behar da. Balazta-likidoa 2 edo 3 urtean behin ere aldatu behar da.

5. Aire-iragazkia. Zikin badago, ez du uzten kaleko airea behar bezala xurgatzen, eta erre-kuntza osatugabea edo eskasa eragiten du. Horrek esan nahi du potentzia gutxiago duela, ke beltz gehiago, kutsadura handiagoa eta katalizatzailearekin, EGR balbula-rekin eta abarrekin arazoak dituela. Komeni da 10.000-12.000 km-tik behin ordezkatzeko, poluzio handiko hirietan edo lurrezko bi-

deetan ibili ezean.

6. Pneumatikoen presioa. Hotzean egin behar da, 15 edo 30 egunean behin. Presio baxuko pneumatiko bat gehiegi berotzen da eta lehertu egin daiteke. Egiaztatu behar da, halaber, errodadura-bandaren ildoek 1,6 mm-ko sakonera dutela gutxienez. Bestela, heldulekua ahulagoa izango da, eta aquaplaning-a (udako euriteek eragingo dutena) lehenago agertuko da. Ez da ahaztu behar akats mekaniko baten ondorioz gertatzen diren istripuen % 60 pneumatikoak gastatuegi egotearen ondorio direla.



KARAKATE
Pneumatikoak

Mekanika orokorrean eta pneumatikoetan
espezializatutako tailerra

Askotariko markak

Olaso industri aldea, 15
20870 Elgoibar
640 322 621

- ➔ Pneumatikoak muntatzea eta orekatzea.
- ➔ Distribuzioko korreak.
- ➔ Amortiguadoreak.
- ➔ Mantenu orokorra (olio-aldaketa, filtro aldaketa...)
- ➔ Elektrizitatea.
- ➔ Enbrageak.
- ➔ Bateriak.
- ➔ Neurria egindako lerroakadurak:
kaleko eta lasterketetarako ibilgailuak.
- ➔ Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren aurrekoa.
- ➔ Ibilgailuen Azterketa Teknikoa pasatzen diogu zure autoari, ekarri garajera eta utzi ezazu beste guztia gure esku (partikular eta enpresak).

Kaleko eta lasterketetarako ibilgailuetan birprogramatzeak,
ibilgailuen motorra indartzen dugu eta kontsumoa jaisten dugu.

➔ POTENTZIA + ←
KONTSUMO -

Esku batekin hartu, eta bestiaikin eman: Asko irabazi, baina asko gastatzen duenari esaten zaio: esku batekin asko hartzen du, baina beste eskutik asko joaten zaio.

Ipar Irlandako Trim the Velvet taldea izango da aurtengo gonbidatua Nazioarteko Folklore Jaialdian

Urtebeteko etenaren ondoren, uztailaren 23an itzuliko da Nazioarteko Folklore Jaialdia. 34. edizioa izango da aurtengoa, eta azken urteetan bezala, Maalako parkean egingo dute. Pandemiara egokitu behar izan dute aurtengo ikuskizuna, eta ondorioz, laburragoa izango da. Orduetgia ere ez da ohikoa izango, eta arratsaldeko zazpiretan hasiko da.

Aurten beraz, hiru taldek beharrean, bi taldek hartuko dute parte: Ipar Irlandako Trim the Velvetek eta Elgoibarko Haritz Dantza Taldeak.

Ipar Irlandako taldea da Trim the Velvet, Belfastkoa hain zuzen ere, eta Irlandako dantza tradizional batetik hartu du izena taldeak. Kathy O'Connor dantzari eta koreografoak sortu zuen taldea, eta bera da gaur egun ere zuzendaria. Kolorre eta musika biziz jantziko dute Maalako parkea.

Haritz dantza taldeak, bestalde, Gipuzkoako dantzak dantzatuko ditu: Ezpata dantza, soka dantza, trokeo dantza, fandangoa eta arin-arina. 21 dantzari arituko dira.

Covid-19a dela-eta, kutsatzeko arriskuak murriztu nahi izan dituzte, eta ondorioz, talde bakoitzak bere txanda izango du oholtzan, eta ez dira une batean ere nahastuko. Irlandako taldeak hasiko du saioa, eta talde bakoitzak ordu erdiko emaldia egingo du. Antolatzaileek jakinarazi dute aurten ez diotela talde gonbidatuari harrerarik egingo udaltekian, jende pilaketak sahiesteko.



Aforo mugatua

Maalako parkean jarriko dituzte harmailak, baina aurten aforoa mugatuko dute. Doan izango da ikuskizuna, baina aurrez izena emateko eskatu dute arduradunek. Horretarako, mahaia jarriko dute gaur eta datorren barikuan Maalan bertan, 17:00etatik 19:00etara. Sare Sozialetan eta watssapez ere zabalduko dute online izena emateko aukera.



Udal Musika Bandak Kalegoen plazan emango du kontzertua, domekan

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan Kalegoen plazan, 12:30ean hasita. Azken kontzertua Trinitate jaietan eskaini zuten, eta oraingoan ere aire librean emango dute. Gorka Mujikaren zuzendaritzapean, ondorengo piezak joko dituzte:

- *The Bandwagon* (Phillip Sparke).
- *Car* [1-Ford, 2-VW, 3-Chevy, 4-MG, 5-Ferrari] (M. Peeters).
- *Piratas del caribe* (K. Badlet).
- *Copacabana* (Naohiro Iwai).

Aita Agirreko Kultur Kafearen inguruko hausnarketa hasi nahi du EH Bilduk herriko kultur dinamikaren inguruko gogoeta sustatzeko

Elgoibarko Udalean ordezkaritza daukaten alderdi politikoak eta herriko kultur eragileak Aita Agirreko Kultur Kafearen inguruko hausnarketa ireki batean parte hartzera deitu ditu EH Bilduk. Egin duten proposamenaren arabera, prozesu bat zabaldu nahi dute herriko kultur dinamikaren inguruko gogoeta sustatzeko eta kultura arloko etorkizuneko lan ildoak eta lehentasunak adosteko, “beti ere kulturak Elgoibarren izan dezakeen eragin estrategikoa eta sozio-ekonomikoa sendotzeko”. Prozesu hori zabaltzearekin batera, herritarren eta kultur eragileen partaidetzarako dauden bideak aztertu nahi dituzte, eta kultur gunearen kudeaketarako eredu ezberdinen “bideragarritasuna eta egokitasuna” ikertu. Hausnarketa prozesu hori bideratzeko Kulturaren kontseilua sortzea proposatzen dute, Elgoibarko herritarren partaidetzari buruzko araudian aurreikusitako kontseilu sektoriala. Azkenik, nabarmendu dute proiektuak auzolanean garatutakoa izan behar duela izatekotan: “EH Bildutik beti defendatu izan dugu Elgoibarrek behar zuen kulturaguneak Aita Agirreren eskoletan egon behar zuela. Asko poztu gara tokiko gobernua neurri hori hartu duenean. Baina proiektua eraikina altxatzera eta kultur eragileak bere bulegoetan birkatzera mugatu da. Lehenengo egunetik eskatu dugu Elgoibarri 5 milioi baino gehiago kostatu zaion proiektu handi bat herriko eragile politiko eta kultural guztien artean diseinatutako plan estrategiko kultural baten barruan kokatu beharko litzatekeela, eta hori da ikusten ez duguna”, adierazi dute. Inauguraziotik urtebete pasatxo igaro ondoren, proiektua ez dela behar bezala garatu uste dute, eta euren ustez, indarrean zegoen Aita Agirreko taberna zerbitzuaren kontratuaren eteteak baieztatu besterik ez du egiten hori.



Eserita egin zuten dantza herritarrek Mauxitxaren erritmora



Orain arte inoiz eskaini ez duten formatuan eman zuen kontzertua Mauxitxak joan den barikuan, Kalegoen plazan. Udalak antolatu duen *Kultura Eguzkitan* egitasmoko lehen emanaldia izan zen. Pandemiaren eraginez, eserita jardun ziren musikariak, eta publikoa ere eserita egon zen, distantziak zainduta, baina hala ere, dantzarako giroa sortu zen Kalegoen plazan. Urtebete luzeko etenaldiaren ondoren itzulera ez zen amestutakoa izan, baina igarri zen jendaurrean joteko gogoz zeudela musikariak eta jendea ere dantzarako gogoz zegoela. Txiki Egunean ohikoak diren doinuez gain, pop-rock estiloko musika taldeen abesti ezagunak ere jo zituzten tartean. Elgoibarko Dultzaineroen laguntza ere izan zuten zenbait abestitan. Bideoa www.barren.eus webgunean.

Zirkoa gaur, Elgoibarren

Zirika Zirkus taldeak *Hemendikara* kale zirkoa aurkeztuko du gaur, *Kultura Eguzkitan* egitasmorean barruan. *Hemendikara* zirko konpainia nomada bat da. Jatorri ezberdinetako lagunek osatzen dute konpainia. Egunero bezala, oilarrak abestearekin batera esnatuko dira, eta beroketak egiten ari direla, konturatuko dira konpainiaren inguruan jendea pilatu dela. Ikusleak dira! Horrenbeste denbora ikuslerik gabe egon ostean, sorpresaz hasiko dira ikuskizuna prestatzen. Umorea, maitasuna, aniztasuna eta berdintasuna bezalako baloreetan oinarritzen da ikuskizuna. 19:00etan hasiko da, Kalegoen plazan.

Galiziako Northwest Triaman ironmana bukatzea lortu du Javi Muñozek

Galizian jokatzeko den Ironman distantziako triatloi bakarra da Northwest Triaman. AS Pontes lakuaren inguruan egingen da, A Coruña hiritik 50 bat kilometrora, eta joan den ekainaren 27an jokatu zuten zazpigarren ekitaldia. Jaz Eibar triatloi taldeko kide Javi Muñoz elgoibartarrak distantzia luzeko proba egin zuen, Ironman distantziakoa: 3,8 kilometro igerian, 180 bizikletan eta 42 korrika. Ur artifizialeko As Pontes urtegiaren ekin zioten lasterketari. Denak batera irten beharrean, binaka irten ziren triatloilariak, pilaketarik ez sortzeko. Javi Muñozek azaldu duenez, "uretatik irtetzerakoan nabaritu zuten tenperatura aldaketa izan zen gogorrena", klimatologia gogorrari egin behar izan baitzioten aurre. Bizikleta gainean egin zituzten 180 kilometroetan "gogotsu" aritu zen, baina azken probarako indarrak gorde zituen, maratoi batekin amaitzen baita ironman bat. Eta funtzionatu zion estrategiak. Txirrindularitzako zatia amaitzean 177. postuan zegoen eta



maratoian 68 postu aurreratu zituen, azkenean 109. postuan amaitzeko. 12 ordu, 3 minutu eta 56ko denbora egin zuen. Javierren anaia Mikelek ere hartu zuen parte Galiziako proban, distantzia erdiko triatloian (1,9-90-21) baina. 94. postuan sailkatu zen 5:21:28 kodenbora eginda.

Arrauneko gorengo kategorian debuta egin du Ainhoa Larrañagak Donostiarra Lacturale traineruarekin

Ainhoa Larrañaga Jaiek (Mendaro, 1995) Donostiarra Lacturale traineruarekin debuta egin zuen joan den domekan, Galizian jokatuako V Bandeira Cidade da Coruña estropadan. Hala, arraunaren gorengo kategorian, ACT Euskotren ligan, debuta egin du Donostian bizi den mendarotar gazteak. Talde nagusiarekin jokatu zuen lehen estropadan laugarren postua eskuratu zuen Donostiarra Lacturalek. Orio Orialkik irabazi zuen Coruñako bandera, Leire Garate arraunlari elgoibartarraren taldeak, hain zuzen ere. Bi jardunaldi jokatu ostean, Arraun Lagunak taldea dago lidertzan Euskotren Ligan, zazpi punturekin, Orio Orialkik 6 puntu ditu, eta Donostiarra Lacturale 5 punturekin dago hirugarren postuan.



Paula Calvo igerilaria Euskal Herriko txapelkun

Alebinen Euskal Herriko Txapelketa jokatu zuten ekain bukaeran Getxoko Fadura kiroldegiko igerilekuan, eta Eibar Igerixan taldeko Paula Calvo igerilari elgoibartarrak emaitza bikainak eskuratu zituen. Calvo lau probatan lehiatu zen: libre erako 100 eta 200 metrokoetan, 100 bizkar erakoan eta 200 estiloetan. Azken proba horretan, 200 estiloetan, bera izan zen azkarrena 2:48.97ko denbora eginda. La bi segunduko alde atera zion bigarren egin zuen Haizene Maciasi. Gainerako hiru probetan ere ez zen batera gaizki moldatu, txapelkunorde izan baitzen hiruretan. Hortaz, lau domina eskuratu zituen, urrezkoa bat eta zilarrezkoak hiru.



Ampo-ikolan taldeko Unax Iztueta txirrindulariak irabazi du Mendaroko Javier Ezenarro Oroitzarrea

Joan den zapatuan, uztailaren 3an, jokatu zen Mendaroko junior mailako Javier Ezenarro Oroitzarrea, Gipuzkoako Txapelketako proba, 98 kilometroko lasterketa. Mendaron hasi, Oñatiraino joan (Zubillaga auzoa), Debaraino buelta egin, Kalbario gaina igo, Elgoibartik Azkaratera igo errepide zaharretik eta Mendaroko Kurutz Gain industrialdean amaitu zen lasterketa. Guztira, 99 txirrindulari abiatu ziren irteera puntutik, eta Ampo-ikolan Sports taldeko Unax Iztueta Olano izan zen helmugaratzen lehenengoa, 2:30:33ko denbora eginda, eta bera izan zen Gipuzkoako Txapelketako txapelduna ere. Bigarren, Aitor Agirre sailkatu zen, Viveros San Anton-Mardu taldekoa (26 segundura), eta Atracciones Sanz taldeko Ekain Ajerrista Azkuek egin zuen hirugarren, Aitor Agirreren denbora bera eginda. Mendiko saria, berriaz, Donosti Berri taldeko Yago Agirre Subijanarentzat izan zen, eta taldekakoa, Ampo-ikolan Sportsek jaso zuen. Gipuzkoarrak izanda hirurak, Gipuzkoako Txapelketako podiuma ere hirurek osatu zuten. Aipagarria da, Elgoibarko Lagun Taldea-Laboral Kutxa taldeko Beñat Fernandez Loiolak egindako lasterketa ere (Goiko argazkian, eskubikoa). Sailkapen nagusian bederatzigarren postuan sailkatu zen, irabazlearengandik 2 minutu eta bost segundura, eta sasoiko dabilela erakutsi zuen beste behin ere. Lasterketa bukaeran honako balorazioa egin zuen txirrindulari mendaroarrak: "Oso azkar abiatu gara. Oñatira joan eta buelta oso erritmo azkarrean joan da lasterketa. Banekien, baina, Kalbariotik Elgoibarrera tropela apur bat lasaituko zela, eta beraz, Kalbariora orduko jo behar zela eraso. Mutrikun hamar laguneko talde bat joan gara buruan eta Kalbario nahiko azkar igo dugunez, tropela atzean lagatzea lortu dugu. Mantendu gara aurrean



Kalbariotik Azkarateraino, baina Azkaraten gora nahikoa justu gindoazen, eta aldendu zaizkigu batzuk, baina, tira, pozik nago egindakoarekin. Gehiago nahi nuen, baina gustura nago".

Dakar rallyan seigarren egin zuen Lorenzo Santolinok enduro ikastaroa eman zuen Idotorben



Lorenzo Santolino (Guijuelo, Espainia) moto gidariak enduro ikastaroa eman zuen aurreko asteburuan Elgoibarren, Urnabitza moto klubak eta Motos Ion dendak antolatuta. Santolinok seigarren postua lortu zuen motoetan joan den urtarrilean jokatu zen Dakar rallyan. Hala, goi mailako gidari batekin trebatzeko eta ikasteko aukera izan zuten Elgoibar eta inguruetako 15 moto gidarik. Astebete lehenago Elgoibarko Enduro txapelketa jokatu zen Idotorbeko zelaietan egin zuten ikastaroa. Frantziako Sherco moto-etxearen kontzesionario ofiziala da Motos Ion, eta markaren bitartez ekarri ahal izan dute Elgoibarrera Santolino, aurrez Mario Romanekin (Munduko muturreko Enduro txapelduna) egin zuten moduan.

LANA.....

Eskaerak

Pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo asteburuetan. ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko eta gabiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. ☎ 688 735 551

Mutila lanerako prest. Adinekoak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako, zerbitzari lanetarako, banatzaile... edo zertarako prest. ☎ 626 407 923

Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko. Esperientzia eta titulua ditut. Beste edozein lan egiteko ere prest. ☎ 626 490 986

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 202 116

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka eta asteburuetan ere lan egiteko prest. ☎ 641 821 288

Neska gaztea, udan umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntza ikasketak eginda. Euskalduna. ☎ 689 61 88 20

Eskaintzak

Adineko pertsona bat zaintzeko zaintzaile bila gabiltza. Ezinbestekoa titulazioa eta paper guztiak legez izatea. Garrantzitsua da txakurrak gustuko izatea.

☎ 675 705 139 / 629 184 010

Aurrekontu Irekiak 2021

Denona, erabakia. Denona, etorkizuna.

AUKERATU GIPUZKOAREN ETORKIZUNA ERAIKITZEKO PROIEKTUAK

Herritarren proposamen ugari jaso ditugu eta proiektu bihurtu ditugu. Aukera ditzagun gure lurraldearentzat onuragarrienak direnak. Parte hartu gipuzkoa.eus/partaidetza

Gipuzkoak badu etorkizuna.

Proiektuen bozketa: 2021eko ekainaren 30etik uztailaren 25era









Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas

Euzko Finantza Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean urteak dira ez dugula fatxada berri-tzeko obrarik egin, bileretan sekula ez dugulako gai horren inguruan erabakirik hartzen eta hurrengo batean aztertze-ko lagatzen dugulako beti. Niri iruditzen zait berritzeko premia duela fatxadak, zati batean oso hondatua dagoelako. Jakin nahiko nuke nola landu behar dugun gai hau batzarretan erabakiren bat hartu ahal izateko.

Mantentze lanak egitea komeni denetan administratzaileak presidenteari eskatu behar dio obrak lehenbailehen hasteko eta hark bizilagunei, gerta daitekeelako mantentze lanak ez egiteagatik fatxadako zatiren bat-edo jaustea. Obra egin beharraz ohartarazi arren, presidenteak kasurik egingo ez balu, bera izango litzateke gerta daitekeenaren erantzule, beti ere, jakina, ohartarazpen hori egon dela baieztatuko baliiz eta presidenteak obra hori eginarazteko jarraitu beharreko pausoak eman ez dituela frogatuko baliiz. Obra atzeratzea bizilagunek euren erabaki badute batzarrean, bizilagunak izango dira gerta daitekeenaren erantzule.

AHOLKUA: Legeak dio ezinbestean egin behar diren obren kasuan ez dela batzarren onespikin behar aurrera egiteko. Presidenteak erabakiko du egin edo ez. Hori bai, batzarrean aztertu beharko dira aurrekontu ezberdinak eta haiek aukeratuko dute zein aukeratu. Obra hori egitea eskatzen duena Administrazioa denean, batzarrek ez du zeresanik izango gainan.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

9 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Antzerkia: 'Zirika zirkus: hemendikara'. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Maalako parkean).

22:00 Aire libreko zinema: 'Horman erlojua duen etxea' filma. Udaleko Kultura Sailak antolatuta. Frontoian.

11 DOMEKA

10:00 Diana, herriko dultzaineroekin.

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Maalako parkean).

16 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Rojo telón: korapiloa'. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Maalako parkean).

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

9 BARIKUA	10 ZAPATUA	11 DOMEKA	12 ASTELEHENA	13 MARTITZENA	14 EGUAZTENA	15 EGUENA	16 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Arriola	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Garitaonandia	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

ZORIONAK



Zorionak, **Laiene**,
uztailaren 6an 3 urte
bete zenituelako!
Oso ondo pasatu
genuen! Etxekoen,
eta bereziki, Aietzen
partez.



Argazkiak eguazten eguerdia
(12:00ak) baino lehen
ekarri behar dira
BARRENEko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus
e-postara edo
☎ 688 634 044 bidalita.



JVR udako edredoak





JVR beti zure etxea inspiratzen



Oheko arropa, haurrentzako oheak eta gortinak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com



Manu Sanchez

Izaro Etxegibel



Asteartea zen. Esnatu, begiak zabaldu, hanka oinutsak lurtean jarri eta logelako leihorantz joan zen. Eskulekuari heldu eta leihoa zabaldu zuen. Euria ari zuen. Kristalezko potoan hilabeteak zeramatzan galleta bigun bat

esne hotzetan busti zuen gosaltzeko, sukaldean tente, argia piztu ere egin gabe. Aurreko eguneko arropa zikina jantzi eta eskailetan behera abiatu zen, antiojo grisak soinean.

Esnatu, begiak zabaldu, hankak lurtean jarri eta logelako leihorantz joaten zen goizero. Egunen batean urre kolorekoa izan zen eskuleku hari heltzen zion eta leihoa irekitzen zuen. Ez zeukan gortinarik, ezta pertsianarik ere; ez zituen behar, ez zuen filtrorik nahi. Urduri egon ohi zen zeruak zer erakutsiko zion jakiteko. Lepoa asko luzatu behar izaten zuen inguruan zituen etxe zahar eta ilun haien artetik zeru zati txiki bat ikusi ahal izateko. Berdin zitzaion, ordea, postura aldre-

bes hura; zerura begira igarotzen zuen minutu bat, edo bi. Dena zen zeru-kolore begien aurrean, eta hark emandako erantzunaren arabera izango zen aurretik zeukan eguna, sentituko zuen sentitu beharrekoa, ikusiko zuen ikusi beharrekoa, pentsatuko zuen pentsatu beharrekoa, esango zuen esan beharrekoa...

Zeruaren kolorearen arabera beturrekoak janzten zituen. Antiojo urdin txiki batzuk zeuzkan oskarbi bazegoen janzteko, grisak euria ari bazuen, zuri kolorekoak lainoak agertuz gero... Gavez, mesanotxean uzten zituen beturreko beltzak, ez zituen behar. Koloretako ametsak izan nahi zituen.

Baina egun batean, bere buruari agindu zion, aurrerantzean, ez ziola zeruari utziko eguna eta bizitza nolakoak izango ziren erabakitzen. Are gehiago, ez ziola argi ezak animoa apalduko, eta, berandu baino lehen, euritan dantzan jarduteko ikastaroan izena emango zuela. Kolore guztiak direlako politak, janzten ditugun antiojoen arabera.

“Urduri egon ohi zen zeruak zer erakutsiko zion jakiteko”




Txema Aizpurua Arregi

2021eko uztailaren 5ean hil zen, 66 urte zituela.

***Maitasunak ekarri zuen Elgoibarrera
eta maitasunez hartu zuen herriak Txema.
Bere zatitxo bat beti egongo da herrian.***

Familia



Tio Juan Mugerza Garagarza

"Belaustegi"

2021eko uztailaren 2an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure ahotsa beti kantari,
eta zure irribarrea
beti gogoan izango dugu.***

Belaustegiko familia

ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

**Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**

EUSKARA ALA EZKARA ERTZETAN? Euskaldun identitateak XXI. mendean



IBON MANTEROLA

Gaurko euskal hizkuntza-komunitatearen analisia:
ertzak erdigunean.



MIREN ARTETXE

Bertsolaritzatik hiztun berrietara;
hiztun berrietatik hizkuntza ideologietara.

Kafea eta pastak



**IBAI IZTUETA
ENEKO GORRI
TARANA KARIM**

Zer da euskaldun izatea?
Identitatearen gaineko gogoeta.

Moderatzailea:
Kike Amonarriz



**NINGRA
GARAZI ARRULA
NEREA IBARTZABAL**

Euskalduntasun onak eta txarrak:
naturaltasuna auzitan.

Moderatzailea:
Idurre Eskisabel



NINGRArena rap kontzertua
Pintxo-bazkaria (nahi duenarentzat)



ELGOIBARREN - Urriaren 16an, larunbata

27€ (pintxo-bazkariarekin), 20€ (pintxo-bazkaririk gabe).

Informazio gehiago eta izena emateko:

www.elgoibarkoizarra.eus - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus - 943 741 626

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babesleak:



Diputazioa Foru Aldekoa

Programa zehatza, ordutegiak eta bestelako xehetasunak irailean jakinaraziko ditugu